87-zb

www.comeniustimes.com
abcomenius@euskalnet.net

A.B.E

2005eko maiatzaren 17a, asteartea



Editoriala

Kaixo lagunak. Gu Ane L, Ane D, Borja eta Unai gara eta gure A.B. Ea eskeiniko dizuegu.

Hilak 29ko ibilaldia prest dago

Bizkaiko ikastolek antolatu dute hirugarren aldiz ibilaldi bat.

"Eman bostekoa!" leloa jarri diote. Hau hilak 29an izango da eta Durangoko ikastolek antolatzen dute.

6,5 kilometrokoa da ibilbidea.

Maiatzak hamairuan ikastolen agerraldia egin zuten Bilbon.

24 ordukoa izango da jaialdi hau. Durangorako prestatu den egitaraua bukatzen denean, 20:00ak aldera, festaren lekukoa AEBetako Reno hirian bizi diren durangarrek hartuko dute.

Ameriketako txoko hartan bi kilometroko ibilaldia egingo dute, Renoko Unibertsitateari esker.

ibilaldia durango 2005 emon bostekoa

Erredaktoreak

Gu Ane D, Unai, Ane L eta Borja gara

aurkibidea

1.- PORTADA: Hilak 29ko ibilaldia prest dago.
2.- ELKARRIZKETA: Morlans
3.- ALBISTEAK: ZAPATILA ZAHARRENAK, 1 FORMULA, LARUNBATEKO FESTA.
4.- LUMAREN KILIMA: Prehistoric live.
5.- GU ERE IDAZLE: TRENEN MUNDUA.
6.- ENTRETENIGARRIAK: Gess the word.

Gure eskola

ARROSAK ARTIKUTZAN

Gaur Arrosak Artikutzara joan dira. 9.15etan joan dira eta han jango dute. 3:15etan itzuliko dira eta hona 4:30 etan ailegatuko dira.

Elkarrizketa

Victor eta Mikelekin hitz egiten Morlansekoari buruz.





1- Ondo iruditzen zaizu Morlans botatzea?
V- Ez. M- Ez.

2- Ondo irudituko litzaizuke Morlanseko neska eta mutilak gure eskolara etortzea?
V- Berdin zait. M- Ez.Lekurik ez dagoelako.

3- Komertzion egotea gustatuko litzaizuke?
V- Ez. M- Ez.

4- Protesta egingo duzu larunbatean?
V- Ez. M-Ez dakit.

5- Ze konponbide emango zenioke arazo honi?
V- Azkar egitea beste eskola.
M-Protestatu.

MUNDUA



Britaina Handiko arkeologo talde batek orain dela 2.000 urteko zapatila bat aurkitu du. Zapatila hori Burdin aroan erabiltzen zen. 44 tailakoa da , 30 zentimetro neurtzen du luzeran.
Exeterreko Royal Albert Memorial museoan jarriko dute ikusgai.

KIROLA

Fernando Alonsok esan du zenbait pilotori ongi etorri litzaiekeela birziklatzeko ikastaro batzuk egitea. Hau esatean Ralf Schumacher-ez oroitzen da, Monakoko 2004ko lasterketaren izandako istripuarengatik.

ESKOLA

Larunbatean, maiatzak 21, kontzentrazio protesta bat izango da Alderdi Ederren. Protesta 12.00etan hasiko da, hor Amara Berriko irakasle, guraso eta ikasleak izango dira. Kontzentrazio hori Morlanseko ikasle eta irakasleak Komertziora eraman nahi dituztelako egingo da. Hor bertan kantariak, pailazoak, bertsolariak eta giza-kate bat egongo dira. Giza-katea udaletxetik, gobernuko delegazioraino izango da. Hor jendeak puxikak eta kamiseta zuri edo beltzak eramango ditu, gainean dortsal bat jartzeko.

Komertzio eraikina

PREHISTORIC LIFE

Earth is thousands of millions years old. In the beginning there was no life at all.

The first animals grew in the sea. Since then, in the earth we have got millions of different kinds of animals.

We know what some of them looked like from the fossils of their remains. Dinosaurs disappear out 65 million years ago.

Earth was formed 4,600 millions years ago.

The first fish lived 475 million years ago.
The first plants grew on land 430 million years ago.
The first amphibians lived 370 million years ago.
The first reptiles lived on land 310 million years ago.
The first dinosaurs lived 230 million years ago.
The first mammals lived 230 millions years ago.
The first birds appeared 145 million years ago.

All the dinosaurs became extince 65 million years ago.

The first humans lived 2 millions years ago.

Pteraspis is the first kind of fish.

Fish were the first animals to have backbones.

Ichthyostega is the first amphibian. It lived on water and land.

Dinosaurs died out 65 millions years ago.

To be replaced, by new animals.

Egilea:Oscar Santesteban.

Gu ere idazle

TRENEN MUNDUA

Bazen behin tren txiki bat oso zaharra zena, zazpi bagoi zituen eta gidari aparta.

Behin batean, trena beteta zegoela, oso bidai luzea egitea tokatzen zitzaion, Donostiatik Tailandiako Bangkok hiribururaino hain zuzen ere! Parisetik zihoaztenean Eiffel Dorrea ikustean izugarri poztu ziren. Hain bizi zihoanez, uste baina azkarrago iritsi ziren Tailandiara, hiru egunetan egin zuenez bidea, munduko errekorra lortu zuen. Tailandiatik bueltan zetorrela kotxe bat trenbidean sartu zen eta trena trenbidetik atera eta deskarrilatu zen. Handik aurrera ospea galdu zuen eta urteak igaro zituen ibili gabe. Trena askatu egin zen beti toki berdinean egoteagatik eta berriro bidaiatzea erabaki zuen. Italian zehar zebilela trenbide bat zerurantz zihoala ikusi zuen eta bi bider pentsatu gabe harantz joan zen. Orduak igaro zituen igotzen eta igotzen, hodeiak pasa eta espaziora ailegatu zen. Trenbidea planeta baterantz zihoan eta ez zen ez Marte ez Pluton, ez zen horietako bakar bat ere. Planeta misteriotsu horretara iritsi zenean trenak besterik ez zeuden eta galdetzen zion bere buruari zeinek egingo ote zuen trenbide hori. Etxe bat erosi zuen bitan pentsatu gabe zeren bazekien hori zela bere bizitza.

Halako batean kaletik zihoala tren batekin topo egin zuen eta tren horrek tximinia mugitu zuen trenari begira geratu zelarik. Argi txuri bat bota zion eta ABIADURA HANDIKO TRENA bihurtu zen eta munduan agertu zen berriro. Ispilu batera begiratu eta oso moderno eta berria zegoela ikusi zuen eta faltan bota zuen.

" TRENEN MUNDUA"

Egilea:Unai B.

KARTELERA

01:00	CANAL+ DEPORTE 2	NBA play offs: Detroit Pistons vs Indiana Pacers. Semifinaletako 5. Partidua.
20:30	CANAL+	La hora wiki, teknologiako programa.
21:45	Antena 3	"Mis adorables vecinos", Bi familia oso ezberdinak: Sandoval eta Sanchez familiak.

A.B.E. HITZA AURKITU
PORTADAIKOAK EZ DU BALIO

Gess the word

1	H			S	E
	M			S	E
	T			C	H

2	M			N
	B			K
	F			D

3	N			E
	L			E
	M			D